

## ONDORIOAK

1. Batzarkideek beren poza azaltzen dute aurtengo Jardunaldiotako helburua lortu bait dute, alegia, egun euskara mintzatzen ez den tokietako onomastika biltzea eta ikertzea.
2. Gobernu Autonomo eta Foralari eta Foru Diputazioei onomastika ikerketak bultza ditzaten eskatzea beharrezkoa ikusten dute, batez ere toponimiari buruzkoak Enkarterri, Aiara, Lizarrierrian, eta abarretan. Bekadunak hautatzean Akademi Erakundeen aholkuak kontutan izatea beharrezkotzat jotzen dute.
3. Euskal Filologi, Geografi eta Historia Sailak onomastikarekiko eremua kontutan hartzea egoki litzateke, honetan Euskaltzaindiko Batzordeak orain arte buruturiko lanen berri eta aurrerantzekoen koordinaketa egiteko prest izanik.
4. Era berean egoki jotzen dugu gure inguruko Kultur Erakundeekin harremanak izatea.
5. Jabego Erregistro, Artxibategi, Protokolotegi eta abarretara sarrera erraztea behar-beharrezkoa da, berau onomastika ikerketarako ezinbestekoa baita.
6. Herri Administralgoak uneoro begiz jo behar du egitean eta eremuak finkatzean kontutan izan ditzala izen-ezartze eta toponimia ofizialtzean errealitate historiko eta linguistikoak.
7. Arreta handiz entzun ditugu merkatal izendegiarekiko komunikazioak, gure artean berau baita ia-ia landu gabeko eremua.
8. Era berean itxaropen handiz ikusi dituzte Batzarkideek Erdi Aroko iturri historikoetan azaltzen diren toponimiarekiko zerrendez egiten ari diren egungo ikerketak.
9. Jose M.<sup>a</sup> Jimeno Jurioren gidaritzapean prestatuturiko *Euskal Herriko toponimia bilketarako gidaliburua* estimagarri eta balio handikotzat jo dute, lan hau hobegarri izanik oso erabilgarria izango delarik.
10. Ameriketa aurkitzearen V. mendeurrenerako bost urte falta direnean, premiatsuzkoa ikusten dugu Ameriketako euskal onomastikaz ikerketak burutzen hastea, kontinente berrian euskaldunen izatea frogatzen duelarik.
11. Era berean II. Euskal Mapagintza Erakusketak sorturiko poza adierazi nahi dugu, irakurritako ikerketen osagarri bikaina izanik, eta egoki-egoki jotzen dugu Euskal Herriko beste toki batzutan ere erakusketa egitea.

12. Azkenik, Jardunaldiok ezin izango genituen egin Bizkaiko Foru Diputazioak eta Urduñako Udalak babesa ez bazuten eman, Erakundeoi gure eskerrik zintzoenak azaldu nahi dizkiegularik.

Urreztieta (Avellaneda)ko Juntetxean, 1987, Irailak 26.